



Amezketako udaleku irekiak 2019



Koordinatzailearen memoria

Aurkibidea**Orria**

1. Sarrera	3
2. Udaleku irekiak orokorrean	4
3. Programaketa	4
4. Aurre prestaketa	6
5. Begiraleak	6
6. Koordinatzailea	7
7. Gurasoak	7
8. Haurrak	7
9. Hobekuntzak hurrengo urteari begira	8
10. Haurren balorazioak	8

1. Sarrera

- Gurasoei inkesta bat pasa zaie eskuz, ludotekako azken astean eta 38 erantzun jaso dira totalen. Inkesta, galdera ireki eta itxiez osaturik dago, irekian ebaluatzeko 1etik 5tera ebaluatzeko eskatu zaie.
- Begiraleei ere inkesta pasa zaie, hauei ere gurasoei bezala galdera irekiz eta itxiz osaturiko galdetegia pasa zaie.
- Koordinatzaileak ere ataletan bere iritzia adierazi du.

2. Udaleku irekiak orokorrean:

- a. Gurasoek oso ondo ebaluatu dute orokorrean ludoteka denek, hemen galdera itxia zenez 1etik 5tera ebaluatu dute. 38 erantzunetik honela geratu da:

4 puntuazioa: 15 pertsonak.

5 puntuazioa: 23 pertsonak.

Puntuaketa horiek kontuan izan da, gurasoek oso gustura geratu direla eta ludoteka oso ondo ebaluatu dutela esan daiteke.

- b. Begiraleek ere denek 5 puntutan ebaluatu dute ludoteka, puntuaketa hori kontuan izanik, begiraleak oso gustura egin dutela lan esan daiteke.
- c. Koordinatzaileak, 5 puntu ematen dio ludotekari. Ludoteka bezala herrian dauden adin tarte ezberdinen arteko harremana sustatzen dutelako, hau da, haurretatik hasita gurasoen bitarte. Honetaz gain, udaleku ireki hauetan balore ezberdinak transmititzen saiatzen gara bertako hezitzaileak, hala nola, harremanak, elkarlana, Amezketak herri bezala daukan garrantzia, natura eta euskara.

3. Programaketa:

- a. Gurasoei eta begiraleei adin bakoitzeko programaketa ebaluatzeko eskatu zaie bi eratarik, lehena galdera itxien bidez eta bigarrena, irekiaz. Hori kontuan izan da, hurrengo puntuetan gurasoek adin bakoitzeko programaketen iritziaren inguruan adieraziko da:
- i. Txikien programaketa:
1. Gurasoak, 10 erantzun jaso dira eta horietatik 3k 4 puntu eman die eta beste 7k 5 puntu. Honetaz gain, honako iritziak eman dituzte galdera irekitan, zer gustatu zaien gehien eta zien gutxien galdetu zaie:
 - a. Uraren eguna gustatu zaigu gehien.
 - b. Oso ondo antolatutako programa. Begiraleak zoragarriak! Umeak gustora joan eta gustora etorri! Primerakoak zarete jarraitu horrela.
 - c. Umea oso gustor joan da eta ikusi dugu jolas guztietan eta ekinzta orotan gustora ibili dela.
 - d. Programazio egokia
 - e. Uraren eguna gehien gustatu zaigu.
 - f. Orokorrean oso gustora ibili da umea. Gurasoak ere oso gustora antolakuntza oso ondo.
 - g. Dena gustatu zaigu.

ii. Ertainen programaketa:

1. 19 guraso izan dira ebaluatu dutenak, horietatik 4 puntu 8k eta 5 puntu 11 pertsonak eman dute. Emandako iritziak honako hauek izan dira:
 - a. Antolaketa ona dena ondo.
 - b. Egun batzuetan bero haundia egin du eta ur egun gehiago. Eskolako patioan pizina txikiak eta mangera.
 - c. Adin desberdinak elkartu eta joals ezberdinak egiteko aukera (positibo bezala). Negatibo bezala, gurasoen baimen orri bat aurretik banatzea beharrezkoa deritzot, Bestalde irteera hauek dituzten arrisku eta alde negatiboak (haurrak ongi ez ezagutzea, sortu litezkeen gora-beheren aurrean jarrera...) benetan kontuan eduki beharrekoak dira.
 - d. Gehiena irlara eta herri kirolak eta gutxien san fermin.
 - e. Irlako irteera gutxien. Hemen inguruan badaude leku eta toki asko harea jun gabe. Zerbait gertatu ezker zenen ardura da?
 - f. Alaba gustura joan da, gustura egon gara zerbitzuarekin. Gehien gustatu zaizkigunak irteerak izan dira.
 - g. Beste 4 gurasok jarri dute, gehiena irlara joatea gustatu zaiela.

iii. Handien programaketa:

1. 15 guraso ebaluatu dute, horietatik 3k 4puntu eman diete, 12k 5. Emandako iritziak honako hauek izan dira:

- a) 7 gurasok gehien irlara joatea jarri dute.
- b) Oso pozik, beti joateko gogoarekin. Ezer ez galdu nahi.
- c) Oso oso gustora ibili dira umeak eta hori da gehien baloratzen duguna. Gehien gustatu zaiguna begiraleek umeekin egiten duten konexioa. Umeak txoratzen daude.
- d) Oso ondo antolatuta egon da nire ustez, bai zaintzaileen aldetik eta baita aktibitate aldetik.

- b. Begiraleek honela aipatu dute programaketaren inguruan: 8 ebaluaziotik 7k 5 bat eman dute eta beste batek, 4 bat. Gurasoenan bezala, galdera ireki bat jarri zaie honen inguruan adierazteko eta ondorengo idatzi dute:

- Gehiengoak prestatuta egon arren, momentuan aldaketak egiteko gai izan gara.
- Programaketa oso ona izan da eta batzuetan irekitasuna izan dugu.
- Gehien irlara eta txiki park-era joatea gustatu zait.
- Lip dup a gutxien 3 pertsonak.

Begiraleei programaketaren barnean, materialaren inguruan ere galdetu zaie. Kasu honetan

ere, galdera itxi eta ireki moduan egin zaie, ireki moduak zer bota dute faltan galdetu zaie. Galdera itxian, denek 5 punturekin puntuatu dute. Galdera irekian honelako gauzak adierazi dituzte:

- Materialari dagokionez beharrezkoa genuena izan dugu uneoro.
- Eskatutakoa eduki dugu.

C. Koordinatzaileak programaketa guztiak 5 batekin ebaluatzen ditu, programaketan ez da aldaketa asko egon, baina moldaketak behar ziren guztietan begiraleak lan asko egin dute.

4. Aurre prestaketa:

a. Guraso bilerara:

- Guraso 6k ezin izan zuten gerturatu bilerara, baina gerturatu ziren gehienak ondo egon zela adierazi dute, baina guraso batek hobekuntza hau adierazo du.
 - Ondo dago begiraleei aurpegia jartzeko. Baina gauza asko jakintzat bezala ematen dira. Ekintza berezi horien azalpen gehiago ez litzateke gaizki etorriko. 3/5 egunekoak nahasmen handia sortu zuen.
- Begiraleak ere guraso bileraren parte direnez, honen inguruan ere galdetu zaie: puntuaketa bidez galdetu zaie, 1 ez zen egon, baina beste guztek 5ekoa emn dute.
- Guraso bilerari dagokionez, gurasoen iritzia interesgarria dela iruditzen zaio koordinatzaileari, eta programaketa gurasoei ematea oso aberasgarria horrela beraiek ideiarene bat eduki dezaten.

5. Begiraleak:

a. Gurasoei berain seme alaben begiraleak ebaluatzeko aukera eman zaie, 1-5 bitarte eta beraien inguruko iritzi bat emateko aukera eskainiz. Honako hauek izan dira puntuazioak:

- 1 puntu: 0
- 2 puntu: 0
- 3 puntu: 0
- 4 puntu: 15
- 5 puntu: 23

Iritziak honako hauek izan dira:

- Umea oso pozik.
- Ez dut ezagutzeko aukerarik izan, baina umeak oso gogoko izan dute..
- Nere semea oso gustora egon da begiralearekin.
- Oso gustor egon da, askotan aipatu du etxean.
- Neska oso jatorra eta langilea.

- Mirarirekin ederki konpondu da alaba.
- Begiraleei begiraleen lan taldearen inguruan galdetu zaie eta denek 5 puntu eman dizkiote.

Begiraleak bai harremanean eta baita ere, lan egiteko eran 5 puntu ematen diote koordinatzaileak. Oso lan potentea eta oso lan ona egin dute hezitzaileak.

6. Koordinatzailea:

a. Begiraleen kasuan bezala, koordinatzailea ebaluatzeko eskatu zaie gurasoei:

- 1 puntu: 0
- 2 puntu: 0
- 3 puntu: 0
- 4 puntu: 17
- 5 puntu: 21

Iritziak honako hauek izan dira:

- Oso ondo.
- Beharra izan ezker, hortxe beti, oso ondo.
- Zerbait aipatzekotan.... zenbait ohar egun gehiagoko aurrerapenez jaso izan bagenitu hobeto antolatuko ginen. Baina orokorrean oso oso gustora.
- Baita ere bikain, zorionak zuen lanagatik!
- Ikusi dugun guztia oso positiboa.

b. Begiraleak egunerokotasunean aritzen dira koordinatzailearekin kontaktuan eta beraiek oso ondo ebaluatu dezakete bera, kasu honetan ere guztiek 5 puntu eman dizkiote.

7. Gurasoak:

a. Begiraleak gurasoekin zuzenki izaten dute harremana, eta beraiek zein baino hobe ebaluatzeko harreman hori. 6 begiralek 5 puntu eta beste bik 4 puntu.

8. Haurrak:

a. Begiraleak egunero egon dira hurrekin harremanetan eta beraiekiko izan duten harremana ebaluatzeko eskatu zaie: Denek 5 puntu eman dizkiete.

9. Hobekuntzak hurrengo urteari begira:

a. Gurasoak honako gauzak aipatu dituzte:

- Irlara irteera oso ona, errepikatzeko gogoz, Aupa zuek!
- 9.30tan sartzea ondo etorriko liztaidake niri.

- Irlara irteera oso ona, haurrak berriro joateko gogoz. 3 egun nahiko astean guretzat.
- Proposatu nahiko nue, san martinen edo frontoian gau bat akanpada. Experientzia probatzeagatik. Eta udan gaueko zinea frontoian kanpon.
- Umeak 3 egunetan ibili dira aurtan, hurrengo urtean EGUNERO nahi dutela esaten dute, horrekin dena esanda dago. Zorionak egiten duzuen lanagatik.
- 5 eguneko zerbitzuarekin oso iritzi ona. Hurrengo urtean ere errepikatzekoaren aldekoak gara. Betiere, ume gehiago apuntatu ezkerro hobeto!

10. Haurren balorazioak

1. Talde txikia:

Haurrei ere azken egunean balorazioa egiteko eskatu diegu, txikie gehien egun bateratuetako ekinztak gustatu zaikie, uraren eguna eta san fermin batez ere. Ondoren aurpegia margotzea eta San Martinera joatea ere oso ondo baloratu dute.

2. Talde ertaina:

Orokorrean dena gustatu zaiela esan dute, datorren urteari begira irlako irteeraz gain pistinara irteera ere eskatu dute. Hau da, irteera gehiago. Harremanen inguruan galdetuta inongo arazorik ez bai begirale eta elkarren artekoak kontutan hartuta.

3. Talde handia:

Gehien irlako irteera gustatu zaie eta gutxien zentzumenen jolasa. Hauek ere, ertainak bezala irteera gehiago eskatzen dituzte urrengo urtera begira eta irteera horietako bat gaua pasatzea izatea. Harremanen inguruan galdetuta inongo arazorik ez bai begirale eta elkarren artekoak kontutan hartuta.